

IRABAZI ITURRIAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure helburua mota guztietako bezeroak izatea, horrela bidaiatzea pribilegioa izateaz utziko du eta aukera bat bihurtuko da guztiontzat. Hortaz aparte, bezeroak prest egon daitezke ordainketa maila ezberdinak egiteko eskaintzen dituzuen zerbitzu eta produktuaren kalitatearen eta eksklusibitatearen arabera. Prezio merkeak jarri nahiko genituzke ahalik eta esperientzia hobe eskainiz, horregatik eskaitza estandarra egingo da. Baina, prezioa hainbat faktoreen eraginez igoko da. Adibidez:

- **Aparteko Zerbitzuak:** Ekitaldi bereziak, afari gastronomikoak edo tokiko esperientzia bereziak barne hartzen dituzten paketengatik bezeroek prezio altuago bat ordaintzea onartuko dute.
- **Pertsonalizazio Mailak:** Bezeroak, bereziki eksklusibitate eta esperientzia pertsonalizatua eskatzen dutenak, prest egongo dira zerbitzuaren truke gehiago ordaintzeko. Hemen sormen handiko eta bezeroaren gustuetara egokitutako bidaia planak eskaintzen ditugu, eta luxuzko zerbitzu bat bezala balora dezakegu.
- **Ordainketa Aukerak:** Ordainketa malgutasuna eskaintzea lagungarri izan daiteke: ordainketa zatika egitea, erreserba garaian aurrerakina eskatzea edo, nahi izanez gero, bidaia bukatutakoan ordaintzeko aukera ematea bezeroen erosketa ahalmena areagotzeko baliagarria izan daiteke.